rrogeita bi (1.818.142) eurorekin parte hartzeko, % 95,80ari dagokion portzentajean alegia, kapital osoa milioi bat zortziehun eta berrogeita hamazazpi mila ehun eta berrogeita bi (1.857.142) eurokoa baita, eta baimena ematen zaio, halaber, ordainketa egiteko. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak Hidroeléctrica Harana - Kontrasta, SA sozietatean zeharka izango duen partaidetza % 97,62koa izango da.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau onartzen den egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2008ko apirilaren 22an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburua,
ANA AGUIRRE ZURUTUZA.

to cuarenta y dos (1.818.142) euros, equivalente al 95,80% de la misma, que tendrá un importe total de un millón ochocientos cincuenta y siete mil ciento cuarenta y dos (1.857.142) euros y a proceder a su desembolso. La participación indirecta de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi en la Sociedad Hidroeléctrica Harana - Kontrasta, S.A. será del 97,62%.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto surtirá efectos el mismo día de su aprobación.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 22 de abril de 2008.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Hacienda y Administración Pública,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

La Consejera de Industria, Comercio y Turismo,
ANA AGUIRRE ZURUTUZA.

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA
ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA
KULTURA SAILA

2736

69/2008 DEKRETUA, apirilaren 22koa, Donostiako «Asociación Socio-Cultural Banda Bat» kultura-elkartea onuragarria dela aitortzeko dena.

Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legearen 42. artikuluak honela dio: Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Erregistro Orokorrean inskribatuta dauden elkarteak herri-onurakotzat aitortu ahal izango dira, baldin eta elkarteok, beren jardueren bitartez, interes orokorra edo guztien ongia lortzen laguntzen badute, eta, horretarako, eskuzabaltasun-, altruismo-, elkartasun- eta aniztasun-balioak nabarmen gauzatzen badituzte.

Horren babespean, Donostiako «Asociación Socio-Cultural Banda Bat» elkarteak, aipatutako aitorpena eskatu du, egiten dituen jarduerengatik –gizarte kohesio handiagoa lortzeko kulturartekotasuna sustatu eta integrazioa bultzatzeko egiten dituen lanengatik hain zuzen ere- erakunde onuragarria dela aitortzea merezi duela uste baitu.

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL
DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES
DEPARTAMENTO DE CULTURA

2736

DECRETO 69/2008, de 22 de abril, por el que se reconoce como de utilidad pública a la «Asociación Socio-Cultural Banda Bat» de Donostia-San Sebastián.

El artículo 42 de la Ley 7/2007, de 22 de junio, de Asociaciones de Euskadi, establece que podrán ser reconocidas como de utilidad pública, las asociaciones inscritas en el Registro General de Asociaciones del País Vasco, que contribuyan, mediante el desarrollo de sus actividades, a la consecución del interés general o del bien común realizando de manera significativa los valores de generosidad, altruismo, solidaridad y pluralismo.

A su amparo, la «Asociación Socio-Cultural Banda Bat» de Donostia-San Sebastián, ha solicitado la declaración mencionada, por entender que las actividades que desarrolla realizando tareas de promoción de la interculturalidad y fomento de la integración para una mayor cohesión social, la hacen merecedora del reconocimiento como entidad de utilidad pública.

Erakunde eskatzailea 1999ko irailaren 25ean eratu zen eta 1999ko urriaren 25ean inskribatu zen Euskal Autonomia Erkidegoko Bazkunen Errolda Nagusian, AS/G/08237/1999 erregistro-zenbakiarekin. Erakundeak Donostiako hirian dihardu batik bat.

Eratu zenetik, «Asociación Socio-Cultural Banda Bat» elkarteak gizarte-kohesioa bultzatu du Donostian, kontzertu, kantaldi, hitzaldi, topaketa eta sentsibilizazio jardunaldien bidez kulturartekotasuna sustatuz, hain zuzen ere gazteak era egokian gizarteratzeko.

7/2007 Legearen 45.2 artikuluan agindutakoarekin bat etorriz, herri onurako aitorpena Jaurlaritzaren Kontseiluak erabakitako dekretu baten bidez egingo da, arloa dela-eta kasuan kasuko sailek proposatuta, eta sailek eta interesatuta dauden erakunde eta entitateek txostena eman ondoren. Agindu hori betez, dagokion espedientea instruitu da, eta, ondoren, sailei eta instituzioei eskatu zaizkien txostenak erantsi zaizkio espedienteari. Txosten horietan Donostiako «Asociación Socio-Cultural Banda Bat» elkartea onuragarria dela aitortzearen alde agertzen dira bai sailak, bai instituzioak.

Ondorioz, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuaren eta Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren eta Kultura sailburuaren proposamenez, interesaturik dauden erakunde eta entitateek emandako txostenak ikusi ondoren, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2008ko apirilaren 22an egindako bilkuran aztertu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

Artikulu bakarra.– Donostiako «Asociación Socio-Cultural Banda Bat» Elkartea, Euskal Autonomia Erkidegoko Bazkunen Errolda Nagusian AS/G/08237/1999 inskribatuta dagoena, onuragarria dela aitortzea, bere jardueraren bidez Euskadiko interesen alde egiten duela jotzen baita.

Horrekin batera, aitorpen horri dagozkion eskubideak aitortzen zaizkio, hain zuzen ere, ekainaren 22ko 7/2007 Legeko 43. artikuluan jasota daudenak.

Vitoria-Gasteizen, 2008ko apirilaren 22an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburua,
JOSEBA AZCÁRRAGA RODERO.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburua,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.

Kultura sailburua,
MIREN KARMELE AZKARATE VILLAR.

La Asociación solicitante es una entidad constituida el 25 de septiembre de 1999 e inscrita en el Registro General de Asociaciones del País Vasco el 25 de octubre de 1999, con el número AS/G/08237/1999, que extiende su ámbito de actuación principalmente a la ciudad de Donostia-San Sebastián.

Desde su constitución, la Asociación Socio-Cultural Banda Bat ha impulsado la cohesión social en Donostia-San Sebastián, mediante la promoción de la interculturalidad a través de conciertos, recitales, conferencias encuentros y jornadas de sensibilización, logrando así una adecuada integración de los jóvenes en la sociedad.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 45.2 de la citada Ley 7/2007, la declaración de utilidad pública se realizará mediante Decreto acordado en Consejo de Gobierno, a propuesta de los Departamentos que corresponda por razón de la materia, previo informe de los mismos y de los entes y organizaciones interesados. En cumplimiento de dicho mandato, se ha instruido el oportuno expediente, habiéndose incorporado al mismo los informe emitidos por los Departamentos e instituciones requeridos al efecto, en los que manifiestan su parecer favorable a la declaración de la «Asociación Socio-Cultural Banda Bat» de Donostia-San Sebastián, como entidad de utilidad pública.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, y de la Consejera de Cultura, vistos los informes emitidos por los entes y organizaciones interesados, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión celebrada el día 22 de abril de 2008,

DISPONGO:

Artículo único.– Declarar de utilidad pública a la «Asociación Socio-Cultural Banda Bat» de Donostia-San Sebastián, inscrita con el número AS/G/08237/1999 en el Registro General de Asociaciones del País Vasco, por considerar que contribuye a la promoción del interés general mediante el desarrollo de sus actividades.

Así mismo, se le reconocen los derechos inherentes a esta declaración previstos en el artículo 43 de la Ley 7/2007, de 22 de junio, de Asociaciones de Euskadi.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 22 de abril de 2008.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social,
JOSEBA AZCÁRRAGA RODERO.

El Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.

La Consejera de Cultura,
MIREN KARMELE AZKARATE VILLAR.